

# GARAPENERAKO LANKIDETZAKO PROGRAMAK

**180/2023 DEKRETUA, AZAROAREN 28KOA**

**AURKEZPENA**

**eLankidetzza, 2024ko urtarrilaren 19a**

# GAIAK

1. 57/2007 DEKRETUA: IKUSPEGIA, GARAPENA ETA ZAILTASUNAK
2. HAUSNARTZE-PROZESUA
3. DEKRETU BERRIAREN IZAPIDETZEA
4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK
5. ONDORIOAK

# 1. 57/2007 DEKRETUA: IKUSPEGIA, GARAPENA ETA ZAILTASUNAK

## 1. 57/2007 DEKRETUA: IKUSPEGIA, GARAPENA ETA ZAILTASUNAK

**Helburua:** pobreziaren aurka borrokatzea eta garapen-prozesu endogenoak laguntzea.

Baina:

- Modu estrategikoagoan eta koherenteagoan, eta **maila lokal-estatal-internazionalen**.
- **Inpaktu handiagoko proposamenak** eta estrategia sendoagoekin.
- **Analisis osoagoak**.
- **Zehar-lerroen integrazio sakonagoa**.
- **Modu koherentean integratzea identifikazio-ekintzak, garapenekoak, Hegoaldeko erakundeen indartzen instituzionalekoak, Garapenerako hezkuntzakoak eta ebaluaziokoak**

## 1. 57/2007 DEKRETUA: IKUSPEGIA, GARAPENA ETA ZAILTASUNAK


### PROGRAMETARAKO **BALIABIDE ESPEZIFIKOAK:**

- Denbora-epe luzeagoa: 3 urte.
- Finantza-bolumen handiagoa: 1.200.000€
- IDENTIFIKAZIOA finantzatzea: 30.000€
- HEGOALDEKO tokiko erakundeen INDARTZE INSTITUZIONALEKO atala.
- Garapenerako ekintzekin batera, sentsibilizazio/Garapenerako hezkuntza atala Euskadin.

## 1. 57/2007 DEKRETUA: IKUSPEGIA, GARAPENA ETA ZAILTASUNAK

- 2007: lehen deialdia. Deialdirik gabe 2013an eta 2016tik aurrera.
- Guztira 53 programa finantzatu dira, 57.413.144,72€ko kopuruagatik.

### PGM: Funts banagarri guztien gaineko %



## 1. 57/2007 DEKRETUA: IKUSPEGIA, GARAPENA ETA ZAILTASUNAK

### DEKRETUAREKIN LOTUTAKO ZAILTASUNAK

#### 1. Kudeaketa-ereduarekin lotutakoak:

- Identifikazio eta exekuzioaren arteko erlazioa: formulazio bikoitza, exekuziorako denboraren murrizketa, etab.
- Aurrekontu-egitura konplexua, aurrekontu-mugak, kofinantzazioa, etab.

#### 2. Ikuspegiarekin lotutakoak:

- Programen helburuen espezifikotasuna, beste tresna batzuei dagokienez.
- Ezaugarri bereizgarrien integrazio aldakorra

#### 3. Erakundeen betebeharrekin lotutakoak, eskaerak aurkeztu ahal izateko:

- Aurretiko akreditazio-sistema, betekizun oso zorrotzekin. Dekretua garatu bitartean, **15 erakundek** baino ez zuten lortu eskatutako baldintzak egiaztatzea. Horietako batzuk ezin zuten akreditazioa berritu.

## 2. HAUSNARKETA-PROZESUA

2017



## 2. HAUSNARKETA-PROZESUA

- **2017** urtea.

- **Helburua:**

IKUSPEGIA eta HELBURUAK argitzea

ELEMENTU BEREIZGARRIAK finkatzea,  
beste tresna batzuekiko

KUDEAKETA-EREDUA definitzea

ERAKUNDEEN  
BETEBEHARRAK  
identifikatzea

## 2. HAUSNARKETA-PROZESUA

### 1. eLANKIDETZAREN BARNE-IKERKETA

2011-2015 deialdietan diruz lagundutako programen ikerketa (36; guztien %68a);  
Dekretuan ezarritako elementu-bereizgarrien barne-hartzearen analisisa.

## 2. HAUSNARKETA-PROZESUA

### 2. ERAKUNDEEKIN HAUSNARKETA

#### INKESTAK

Programetan parte  
hartutako euskal erakunde  
(14) eta tokiko  
erakundeak (32)



- Kudeaketan zailtasunak
- Identifikatutako potentzialtasunak

martxoak 13

Programetan parte  
hartutako EUSKAL  
ERAKUNDEAK



- Inkesten emaitzen deboluzioa eta trenaren barne-analisia.
- Beste kudeaketa-ereduaren potentzialtasuna
- Garapenerako Hezkuntzaren txertaketa

apirilak 3  
SEKTOREKO  
ERAKUNDEAK(33)



- **Ikuspegia:** helburuak, elementu bereizgarriak eta tresnaren balio erantsia.

SEKTOREKO  
ERAKUNDEEN  
ekarpenak(5)



- Ikuspegia eta kudeaketa-eredua

maiatzak 19  
Euskadi GGKEen  
Koordinakundearekin  
bilera



- Ikuspegia eta kudeaketa-eredua

## 2. HAUSNARKETA-PROZESUA

### 3. ERAKUNDE PUBLIKOAK

#### HAUSNARKETA-ESPAZIOAK

Gasteizko Udala

Garapenerako  
Lankidetzaren  
Erakunde arteko  
Batzordea

Beste  
Garapenerako  
Lankidetzako  
Agentziak

#### BESTE ERAKUNDEEN ARAUDIAREN ETA DEIALIDIEN ANALISIA

AECID

ACCD

AACID

EB

ONU  
MUJE  
RES

ACDI

### 4. IKERKETA ETA ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUEN AZTERKETA

- “Euskal lankidetzaren nazioarteko garapen-testuinguru berria”
- 2030 Agenda
- (H)Abian 2030 Estrategia.
- “Urrats bat gehiago” Ponentzia (Euskadi GGKEn Koordinakundea)
- Etab.

## 2. HAUSNARKETA-PROZESUA

EMAITZA

DEKRETU BERRIAREN ILDOEN EZAUGARRITZEA: IKUSPEGIA, KUDEAKETA-EREDUA ETA ERAKUNDEEN BETEBEHARRAK



**2017ko ABENDUA: AURKEZPEN PUBLIKOA (BILBO)**

# 3. DEKRETU BERRIAREN IZAPIDETZEA

2018-2023

### 3. DEKRETU BERRIAREN IZAPIDETZEA

**2018.** DEKRETUAREN LEHEN BERTSIOAK.

**2019-2020.** eLANKIDETZA ETA LEHENDAKARITZAKO ZERBITZU JURIDIKOEN IKUSPEGIAREKIN LERROKATZEA.

2020. GOBERNUAREN BIRRANTOLAKETA: eLANKIDETZA LEHENDAKARITZATIK BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKEN SAILERA.

**2021.** SAILAREKIN LERROKATZEA ETA SAILBURUAREN HASTEKO AGINDUA.

**2021.** INFORMAZIO PUBLIKOA, GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA, ETA BESTE ERAKUNDE ETA ORGANISMOAK (EMAKUNDE, ETAB.)

**2022-2023.** KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOA, COJUA, LEGEZKOTASUN-ZERBITZUAK, KONTSEILU ERREKTOREA ETA GOBERNU-KONTSEILUA.

**2024.** EHAAn PUBLIKAZIOA



### 3. DEKRETU BERRIAREN IZAPIDETZEA

- IZAPIDETZE-PROZESU KONPLEXUA
- LORPENA: HAUSNARKETA-PROZESUAREN APUSTUAK INTEGRATU ETA MANTENTZEA.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### SARRERA

¿Zein da programak kokatzen diren testuingurua eta ze ikuspegi garatu nahi dute?

- Krisi eta erronka globalak, lurralde, kolektibo eta pertsonetan eragin desberdinekin.
- Tokikoaren, estatukoaren eta nazioartekoaren arteko mugak desitxuratuta. Garapen-arazoei erantzuteko maila horietan eragiteko beharra.
- Nazioarteko adostasuna, garapen iraunkorrerantz aurrera egiteko Iparralde-Hegoalde bimonioa gainditzeko beharraz (2030 Agenda).
- Helburu partekatu baterantz askotariko eragileen baliabideak eta gaitasunak mobilizatzeko beharra.
- Lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren esparruen banaketa tradizionala gainditzeko beharra.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 1. Artikulua.- Xedea

**2.– Iparraldean eta Hegoaldean modu koherente eta osagarrian ekintzak integratzen dituzten ekimenak dira garapenerako lankidetzako programak, eta programa horien helburua giza garapen jasangarria sustatzea da, **ikuspegi lokal-global** batetik.**

**3.– Ikuspegi lokal-globala elementu zentrala izango da diruz lagundu beharreko programetan.** Ondorioz, ikuspegi hori zer neurritan jaso den funtsezko balorazio-irizpidea izango da aurkeztutako laguntza-eskabideetan.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 1. Artikulua.- Xedea

3.- (...) Programetan, eta dekretu honen ondorioetarako, honako elementu hauek osatzen dute ikuspegi lokal-globala:

a. EGITURAZKO ARAZOAK eta ERRONKA GLOBALAK jorratzea

b. IPARRALDEKO eta HEGOALDEKO erakundeen arteko LANKIDETZA

c. ALIANTZAK

d. MAILA ANITZEKO ekintza

e. SUBJEKTUEI laguntza eskaintzea eta HERRITARTASUN GLOBALA eraikitzea

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 1. Artikulua.- Xedea

#### a. EGITURAZKO ARAZOAK eta ERRONKA GLOBALAK jorratzea

- Tokiko arazoak egiturazko kausekin lotzea
- Toki-mailako eta maila globaleko garapen-erronkak erlazionatzea
- Lurralde bakoitzetik aurre egiteko estrategia egoki eta koherenteak definitzea.

#### b. IPARRALDEKO eta HEGOALDEKO erakundeen arteko LANKIDETZA

- Baterako lana eta lan osagarria helburu komunen inguruan.
- Erantzunkidetasuna, sinergiak eta balio erantsia sortzea.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 1. Artikulua.- Xedea

#### c. ALIANTZAK

- Aliantza zabal eta askotarikoak eratzea, hainbat mailatan.

#### d. MAILA ANITZEKO ekintza

- Tokiko, nazioko eta nazioarteko mailetan eragin eta egituratzea.
- Lurralde-dinamiken eta estatuko zein nazioarteko esparruko estrategien arteko lotura.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 1. Artikulua.- Xedea

e. SUBJEKTUEI laguntza eskaintzea eta HERRITARTASUN GLOBALA eraikitzea

- Kontzientzia kritikoa sustatzea, errealitateak konektatzeko eta eraldaketa-borondatea sustatzeko.
- Ikuspegi politiko-pedagogikoak txertatzea.



## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 2. artikulua.– Garapenerako lankidetzako programen faseak.

- 2 fase ezberdin: IDENTIFIKAZIO eta EXEKUZIOA.
- Deialdi bat fase bakoitzeko.
- EXEKUZIORA aurkezteko beharrezkoa de IDENTIFIKAZIOA onartua izatea.
- IDENTIFIKAZIOA onartzen bada, nahitaezkoa da EXEKUZIORA aurkeztea, hurrengo deialdian.
- IDENTIFIKAZIOA diruz lagundua izateak ez du bermatzen EXEKUZIOOrako dirulaguntza.
- IDENTIFIKAZIOA diruz laguntzen bada, baina EXEKUZIOA ez hurrengo deialdian, aukera dago hurrengo EXEKUZIO-deiadirira aurkezteko.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

### 4. artikulua.– Esleipen-prozedura.

- Lehiaketa.
- KOPURUAK, eskatu eta esleitzeko:
  - IDENTIFIKAZIOA: 40.000€ gehienez
  - EXEKUZIOA: 600.000€ gutxienez; 1.200.0000€ gehienez
- Deialdiaren ebazpenak kopuru horiek MURRIZTU ahal izango ditu.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

**5. artikulua.– Erakunde eskatzaileak bete beharreko betekizunak eta horiek egiaztatzeko modua.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroan izena emanda egotea.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

**5. artikulua.– Erakunde eskatzaileak bete beharreko betekizunak eta horiek egiaztatzeko modua.**

### 2. KUDEAKETA-gaitasuna

#### 2.1. ELANKIDETZAREN DIRULAGUNTZAK lortzea

Bi modu betetzeko:

- 2 dirulaguntza onartuta izatea, identifikazio-deialdiaren aurreko 3 ekitaldietan.
- Dirulaguntzak exekutatzen egotea identifikazio-deialdiaren aurreko 5 urteetako bakoitzean.

#### 2.2. Laguntza publikoen **JUSTIFIKAZIOA**

Identifikazioaren aurreko 3 ekitaldiak kontuan hartuta, gutxienez EXEKUZIO fasera eskatuko den kopurua justifikatzea.

**2.3. EAEn gutxienez pertsona bat** kontratatuko dela bermatzea, programa exekuzio-fase guztian kudeatzeko.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

**5. artikulua.– Erakunde eskatzaileak bete beharreko betekizunak eta horiek egiaztatze modua.**

### 3. Gaitasun ESTRATEGIKOA

**3.1. PLANGINTZA ESTRATEGIKOA,** helburu eta ekintza-ildoekin EAE eta Hegoaldeko herrialdeetarako, koherentea aurkeztutako ekimenarekin.

### 3.2. GENERO-EKITATEAREN ALDEKO EKINTZA-PLANA

### 3.3. Esperientzia GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAN

Gutxienez 5 ekintza identifikazio faserako deialdiaren aurreko 3 urteetan.

### 3.4. Esperientzia GAIAN

Gutxienez 3 urteko esperientzia ekintza identifikazio faserako deialdiaren aurreko 5 urteetan.

**3.5. Esperientzia programaren exekuzioan gehien parte hartzen duen elkarteko erakundearekin.**

Gutxienez 3 urteko elkarlana identifikazio faserako deialdiaren aurreko 5 urteetan.

**5. artikulua.– Erakunde eskatzaileak bete beharreko betekizunak eta horiek egiaztatze modua.**

### EGIAZTAPENA

#### NOIZ

- IDENTIFIKAZIORA aurkeztutako ESKAERAREKIN BATERA.
- Salbuespena: pertsonaren kontratazioa EAEn: EXEKUZIOko 1. batzorde mistoan.
- Dirulaguntzak justifikatzea eta elkarteko erakundeekin elkarlana: ofiziozko egiaztapena exekuziorako eskaerarekin batera.

#### DOKUMENTAZIOA

- Dirulaguntzak lortu eta justifikatzea, esperientzia gizarte-eraldaketarako hezkuntzan, gaian eta elkartzeko erakundeekin: MEMORIA, ekimenak identifikatuz.
- Plangintza estrategikoa+azalpena.
- Genero-ekitatearen aldeko ekintza plana.
- \* EXEKUZIOA onartuz gero, lan-kontratua.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 6. artikulua.– Garapenerako lankidetzako programen betekizunak.

#### IDENTIFIKAZIO ETA EXEKUZIO FASEAK

- a) Erakunde-elkarte baten bidez garatzea; horretan, erakunde eskatzaileaz gainera, gutxienez, Hegoaldeko herrialde bateko erakunde batek parte hartu beharko du.
- b) Jarduerak egitea, eraldaketak sustatzea eta inpaktuak aurreikustea, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai, gutxienez, Hegoaldeko herrialde batean.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 6. artikulua.– Garapenerako lankidetzako programen betekizunak

#### IDENTIFIKAZIO-FASEA

**6 hilabeteko gehieneko iraupena**, dirulaguntza emateko ebazpenetik. Aldi horren barruan, identifikazioaren emaitzak aurkeztu beharko dira.

#### EXEKUZIO-FASEA

- a. **Koherentzia** IDENTIFIKAZIOra aurkeztutako proposamenarekin eta identifikazioaren emaitzekin.
- b. **24-36 hilabeteko iraupena (+12 hilabeteko luzapena)**. Hasiera diru laguntza onartzen denetik **bi hilabetera**.
- c. **Azken ebaluazioa**, kanpoko edo mistoa, eta **gastuak** aurreikustea, Hegoaldeko herrialdeetako jatorrizko elkarteko erakundeen indartze instituzionalaren kontzeptuan.



## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

**7. artikulua.– Eskatzaileaz bestelako elkarteko erakundeentzako betekizunak eta horiek egiaztatzeko modua.**

**ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN %20 BAINO GUTXIAGO EXEKUTATZEN DUTENAK**

- Nortasun juridikoa eta urtebete baino gehiagoko inskripzioa erregistroan.
- Irabazi-asmorik ez izatea, edo, bestela, programara egindako ekarpena irabazi-asmorik gabekoa dela bermatzea.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 7. artikulua.– Eskatzaileaz bestelako elkarteko erakundeentzako betekizunak eta horiek egiaztatzeko modua.

#### ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN %20 BAINO GEHIAGO EXEKUTATZEN DUTENAK

1. Nortasun juridikoa eta bost urte baino gehiagoko inskripzioa erregistroan.
2. Irabazi-asmorik ez izatea, edo, bestela, programara egindako ekarpena irabazi-asmorik gabekoa dela bermatzea.
3. KUDEAKETA-GAITASUNA: Identifikazioaren aurreko 3 ekitaldiak kontuan hartuta, gutxienez EXEKUZIO fasean kudeatuko duenaren %80 justifikatu izana.
4. GAITASUN ESTRATEGIKOA
  - a. Plangintza estrategikoa, ekimenarekin koherentea.
  - b. Genero-politika instituzionala.
  - c. Esperientzia gaian: 3 urte, azken 5ak kontuan izanda
  - d. Esperientzia xede-biztanleriarekin: 3 urte, azken 5ak kontuan izanda.

### 7. artikulua.– Eskatzaileaz bestelako elkarteko erakundeentzako betekizunak eta horiek egiaztatze modua.

#### EGIAZTAPENA

#### NOIZ

- IDENTIFIKAZIOra aurkeztutako eskaerarekin batera.
- Exekuzio-faseko eskaeran, identifikazio-faserako eskaeran aurreikusi ez diren erakundeak elkartean sartzea proposatzen bada, edo hasiera batean eskatutako dirulaguntzaren % 20 baino gutxiago exekutatzea aurreikusi zen erakundeak kopuru hori gaindituko balu, erakunde horiek artikulua honetan aurreikusitako betekizunak bete beharko dituzte. Betekizun horiek betetzen direla egiaztatuko da exekuzio-faserako eskaerarekin batera.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

**7. artikulua.– Eskatzaileaz bestelako elkarteko erakundeentzako betekizunak eta horiek egiaztatze modua.**

EGIAZTAPENA

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN %20 BAINO GUTXIAGO EXEKUTATZEN DUTENAK

### DOKUMENTAZIOA

- ESTATUTUAK eta INSKRIPZIO-EGIAZTAGIRIA.

- Ezintasunaren aurrean, erakundeen esperientzia eta jarduera egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Irabazi-asmoa duten erakundeen kasuan, MEMORIA azaltzeko bere parte hartzearen egokitasuna eta irabazi-asmorik gabeko interesa ekimenean.

**7. artikulua.– Eskatzaileaz bestelako elkarteko erakundeentzako betekizunak eta horiek egiaztatze modua.**

**EGIAZTAPENA**

**ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN %20 BAINO GEHIAGO EXEKUTATZEN DUTENAK**

### **AURRETIK AZALDUTAKO DOKUMENTAZIO GEHI HONAKO HAU**

- Dirulaguntzak lortu, esperientzia gaian eta xede-biztanleriarekin: MEMORIA, ekimenak identifikatuz.
- Plangintza estrategikoa+azalpena.
- Genero-politika instituzionala.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 8. artikulua.– Elkarteko erakundeen arteko hitzarmena.

- IDENTIFIKAZIO- eta EXEKUZIO- faseetarako
- Dirulaguntza onartu osteko 2 hilabeteetan.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 9. artikulua.– Betekizunak betetzea.

- Epean betetzea eta egiaztatzea.
- Une oro mantendu beharko dira, diruz lagun daitekeen jarduketa amaitu arte.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 10. artikulua.– Deialdia.

- IDENTIFIKAZIO- eta EXEKUZIO-faseetarako, zehaztuko ditu:
  - Ekimen bakoitzeko KOPURU MAXIMO eta MINIMOAK.
  - Erakunde bakoitzeko ESKAERA-KOPURU MAXIMOA.
  - Eskaeren BALORAZIO-IRIZPIDEAK.
- Horretaz gain, zehaztu ahal izango ditu:
  - Gastu batzuetan LIMITEAK.
  - AFRIKArako onartu beharreko funts edo ekimen kopurua.



## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 11. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

#### OROKORREAN

- Diruz lagun daitezkeen gastuak: esku-hartzearen izaerari erantzuten diotenak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak.
- Erosketa-kostua merkatukoaren araberakoa.
- Tokiko giza baliabideak eta baliabide materialak lehenetsi.
- Ingurumenaren aldetik jasangarriak eta gizartearekiko arduratsuak.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 11. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

#### IDENTIFIKAZIO-FASEA

- a. Langile-gastuak: pertsona fisikoak edo juridikoak kontratatzea.
- b. Bidaietarako, egonaldietarako eta ondasun suntsikorretarako gastuak.
- c. Kudeaketa-gastuak: erakunde-elkartearenak, koordinazio eta jarraipenerako.

**Gehienez** identifikazio-faserako eskatutako zenbateko osoaren % **10a**

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 11. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak

#### EXEKUZIO-FASEA

- a. **Lursail eta eraikinen gastuak.** Hegoaldeko herrialdeetan bakarrik.
- b. **Ekipamendu eta materialen gastuak.**
  - Ekipamenduen erosketa edota alokairua, programaren ekintzekin zuzenean lotutakoak.
  - Hegoaldeko herrialdeetan xede-biztanleriari banatu beharreko intsumoak.
- c. **Xede-biztanleriaren gaitasunak indartzeko eta eragiteko gastuak.**
  - Xede-biztanleriaren prestakuntzarekin eta gaikuntzarekin eta horien erakundeei laguntzearekin zerikusia dutenak, baita eragin-, komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzekin zerikusia dutenak ere.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 11. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak

#### EXEKUZIO-FASEA

**d. Indartze instituzionaleko gastuak.** Elkarteko erakundeen gaitasunak indartzearekin lotutako gastuak, berezita:

- Hegoaldeko erakundeak: indartze integrala.
- Hegoaldekoak ez direnak: indartzea ikuspegi lokal-globala txertatzeko, landinamika eta estrategietan.

**e. Langileen gastuak.**

- Programako jardueren koordinazioari eta exekuzioari zuzenean atxikita dauden langileak kontratatzeari loturikoak.

\* Erakundeen dinamikaren parte diren langileak, programa garatzeko; ez kanpo-kontratazio puntualak.

\*Atzerriratutako langileak(MEMORIA).

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 11. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak

#### EXEKUZIO-FASEA

#### f. Ebaluazio-, ikuskaritza- eta sistematizazio-gastuak.

- Kanpo-kontratazioak, bidaia- eta egonaldi-gastuak, emaitzak zabaltzea eta kontuak ematea.
- Programa amaitu osteko 6 HILABETEETAN egin ahal izango dira.

#### g. Kudeaketa-gastuak HEGOALDEAN

- Hegoaldeko herrialdeetako elkarteko erakundeen gastuak, programaren kudeaketa eta funtzionamendu orokorrerako.

#### h. Kudeaketa-gastuak IPARRALDEAN

- Hegoaldeko herrialdekoak ez diren elkarteko erakundeen gastuak, programaren kudeaketa eta funtzionamendu orokorrerako.

**Gehieneko muga: %5-9. DEIALDIAREN EBAZPENEAN ZEHAZTU.**

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 11. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak

#### EXEKUZIO-FASEA

**EAEn herritar kritikoak sortzera bideratutako jarduerekin zuzenean lotutako gastuak:**

**Gehieneko muga: %15-30**

**DEIALDIAREN EBAZPENEAN ZEHAZTU**

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 12. artikulua.– Azpikontratazioa.

- IDENTIFIKAZIO-FASERAKO onartua.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 13. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

#### DOKUMENTAZIOA

#### IDENTIFIKAZIO-fasea

- ESKAERA: dirulaguntzaren kopurua eta banaketa IDENTIFIKAZIO-faserako; horretaz gain, **aurreikuspena EXEKUZIO-faserako.**
- Programen PROFILA.
- BETEBEHARREN EGIAZTATZEA.

#### EXEKUZIO-fasea

- ESKAERA
- PROGRAMEN BEHIN BETIKO DOKUMENTUAK + ERANSKINAK
- Hala badagokio, BETEBEHAR GEHIGARRIEN EGIAZTATZEA



## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 13. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

#### DOKUMENTAZIOA

#### EXEKUZIO-fasea

\*Identifikazio-faseko deialdian dirulaguntzen onuradun izan arren, exekuzio-faseko ondo-ondoko deialdian dirulaguntzen esleipendun izan ez diren erakundeek berriz aurkeztu ahal izango dute eskabidea, baina exekuzio-faseko hurrengo deialdian bakarrik:

- ESKAERA

-Lehenago egiaztatu den egoerarekiko egon den edozein aldaketari dagokion dokumentazioa.

- PROGRAMEN BEHIN BETIKO DOKUMENTU EGUNERATUA + ERANSKINAK

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

**14. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpenak.**

**15. artikulua.– Laguntzak bideratu eta kudeatzea.**

**16. artikulua.– Aurkeztutako eskaerako akatsen zuzenketa.**

**17. artikulua.– Hautaketa-batzordea.**

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 18. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

#### IDENTIFIKAZIO-FASEA

a) Proposamenaren **egokitasuna** (15 puntura arte).

- Proposamenaren egokitasuna, garatzen den testuinguruaren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak laguntzen dituen prozesuen eta plangintza-estrategiakoaren arabera.

b) **Ikuspegi lokal-globala** txertatzea (70 puntura arte).

- 1 artikuluko 5 elementuekin lerrokatzea.

c) **Planteatutako identifikazio-prozesua** (15 puntura arte)

- Koherentzia profila eta identifikazio-prozesuaren artean.

- Bideragarritasunerako elementuak eta zeharko-ikuspegiekin lotutakoak.

SOILIK BALORATUKO DA AURREKO 2 IRIZPIDEEK GUTXIENEZ 40 PUNTU BATZEN BADITUZTE.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 18. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

#### EXEKUZIO-FASEA

- a) Esku-hartzearen **edukiak** (40 puntura arte).
- Egokitasuna, koherentzia eta bideragarritasuna.
  - Aurkeztutako profilarekin duen konexioa eta egindako identifikazio-prozesua.
- b) **Ikuspegi lokal-globala eta zeharkako ikuspegiak** (60 puntura arte).
- 1 artikuluko 5 elementuekin lerrokatzea.
  - Plangintzetan lehenetsitako zehar-ildoak txertatzea.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 18. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

DEIALDI-EBAZPENETAN ZEHAZTUKO DIRA

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 19. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

- Diruz lagundu ahal izateko eskaerak:
  - \* Bideragarriak izan behar dira.
  - \* Genero-ikuspegia txertatuta izan behar dute.
  - \* 50 puntu baino gehiago izan behar dute.
  
- Afrika: deialdian funts- edo ekimen-erreserba egin bada, aukera dago erreserba hori betetzeko aintzat hartzea beste eskaera batzuk baino puntu gutxiago dituztenak.
  
- Eskaera bat partzialki baiesteko aukera deialdian aurreikusitako funtsak agortzeko.
  - \* EXEKUZIO-FASEA: betiere kopuru hori deialdian zehaztutako minimoa baino handiagoa bada.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

**20. artikulua.– Emateko ebazpena.**

**21. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.**

- Dirulaguntza onartu: 10 egun aldeko ebazpenetik.
- Hasiera-data (ebazpenetik bi-hilabete) eta bukaerakoa zehaztu.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

**22. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

**23. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.**

### IDENTIFIKAZIO-FASEA

ORDAINKETA BAKARRA, dirulaguntza onartzean.

### EXEKUZIO-FASEA

#### 2 ORDAINKETA

- 1. ordainketa: %50. Dirulaguntza onartzean.
- 2. ordainketa: %50. Emandako dirulaguntzaren %25 justifikatzerakoan.

#### 2. ORDAINKETA BETI DIRULAGUNTZA ONARTU OSTEKO URTEAN.



### 24. artikulua.– Justifikazioa.

#### IDENTIFIKAZIO-FASEA

- Dirulaguntza ematen duen ebazpenetik 6 HILABETERA.
- Azalpen-memoria eta finantza-memoria.
- Gastu-egiaztagiriak.

#### EXEKUZIO-FASEA

##### TARTEKO JUSTIFIKAZIO-KONTUA

- Azalpen-memoria eta finantza-memoria.
- Gastu-egiaztagiriak.
- Laguntza onartu osteko urtean.

##### AZKEN JUSTIFIKAZIO-KONTUA

- Azalpen-memoria eta finantza-memoria
- Kontu-ikuskaritzaren txostena, programaren exekuzio-fase guztirako.
- Programaren azken ebaluazio-txostena.
- Amaiera-datatik 6 HILABETERA.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 25. artikulua.– Jarraipen Batzorde Mistoa.

- EXEKUZIO-faserako.
- eLankidetzaren eta erakunde onuradunaren ordezkariak osatuta.
- Aukera elkarteko gainontzeko erakundeek, xede-biztanleriak eta beste batzuk parte hartzeko.
- Maiztasuna: urtean behin exekuzioak iraun bitartean eta azken justifikazioa aurkeztu ostean.
- Batzorde mistoak izan aurretik, eta urte bakoitzeko lehen hilabeteetan, TXOSTEN SINTETIKOA azaltzeko aurreko urtean garatutako ekintzak eta hurrengo aldirako kronograma.

**ELKARRIZKETA  
ESTRATEGIKOA**

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

**26. artikulua.– Abaletik salbuestea.**

**27. artikulua.– Ondasunak dirulaguntzen xedeetara lotzea.**

**28. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.**

**29. artikulua.– Ez-betetzeak.**

**30. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.**

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 31. artikulua.– Aldaketak esku-hartzeetan.

- FUNTSEZKO ALDAKETAK: eskaera eta ebazpen formala.

- \* Helburuak eta emaitzak.
- \* Kokapena.
- \* Elkarreak osatzen duten erakundeak.
- \* Xede-biztanleria.
- \* Luzapenak exekuzio-fasean: bakarrik 3 HILABETE BAINO GEHIAGOKOAK
- \* Aurrekontu-sailtan aldaketak: %10ekoak baino handiagoak, BETI ERE 6.000€ baino handiagoak badira.

- Exekuzio-fasean 3 HILABETE BAINO GUTXIAGOKO LUZAPENAK: ez dute behar eLankidetzaren aldetik baimen formalik, baina jakinarazi eta justifikatu egin beharko dira, hasierako exekuzio-epea amaitu aurretik.

## 4. DEKRETU BERRIA: EDUKIAK

### 32. artikulua.– Kontrola.

**Xedapen indargabetzailea**

**Azken xedapenetako lehenengoa**

**Azken xedapenetako bigarrena**

## 5. ONDORIOAK

## 5. ONDORIOAK

Aurreko erregulazioarekin alderatuta, DEKRETU BERRIAK:

- 1. Ikuspegi lokal-globalaren aldeko apustua** egiten du, programen bereizgarri gisa. Lankidetzaz/hezkuntza eta **Iparralde/Hegoa dikotomia hausteko** bidean aurrera egin nahi du.
- 2. Bi deialdi ezberdin** ezartzen ditu identifikazio eta exekuziorako.
  - Aurreko kudeaketa-ereduan aurkitutako zailtasun nagusiak ezabatzen ditu.
  - Diruz lagundu beharreko ekimenak tresnaren ikuspegi bereizgarriarekin lerrokatuta egotea errazten du.
- 3. Erakundeen arteko harreman-esparru berritzaile bat.**
- 4. Tresnara sartzeko betekizunak arrazionalizatzen** ditu.
  - Eskatzaile izan daitezkeen erakundeen unibertsoa handitzen du.
  - Erakunde eskatzaileak programak garatzeko egoera ezin hobean daudela ziurtatzera bideratzen ditu sarbide-betekizunak.

## 5. ONDORIOAK

### 5. Administrazio-simplifikazioan aurrera egiten du:

- Kofinantzaketarik ez.
- Proformarik ez.
- Azken justifikazio-kontua: auditoretza.
- Aurrekontu-aldaketak eta luzapenak funtsezko aldaketa gisa ulertzea malgutzen du.
- Aurreko dekretuari dagokionez, aurrekontu-partidak eta -mugak murriztu ditu.
- Ebaluazioa, auditoria eta sistematizazioa, amaitu ondorengo 6 hilabeteetan.



## 5. ONDORIOAK

6. Lankidetzaren eragileak indartzen laguntzen du, **erakundeen indartzerako ekintzak garatzeko aukera euskal erakundeentzat** zabalduz.

## 5. ONDORIOAK

Aurreko arauditik eratorritako zailtasun nagusiak ezabatu dira, eta tresna berritzailea eratu da, anbizio handiagokoa eta ezaugarri espezifikoak dituen, eLankidetzak eta euskal lankidetzak publikoak dituzten tresnen esparruan.

# ESKERRAK

**Eskerrik asko!**